

1 GAI A: POLITIKA EKONOMIKOAREN IZAERA OROKORRA

GAIAREN ESKEMA LABURTUA

1. Sarrera

- Zer ikasten du politika ekonomikoak?
- Zerk bereizten ditu teoria eta politika ekonomikoa?
- Nola sailkatzen dira politika ekonomikoak?

2. Sistema ekonomikoak

- Definizioa eta sailkapena
- Sistema kapitalista/sistema sozialista/ekonomia mistoak
- Merkatu-ekonomia
- Estatuaren eskusartzea justifikatzen

3. Politika ekonomikoaren elaborazioa

- Politika ekonomikoaren ikuspuntu tradizionala eta berria
- Politika ekonomikoaren opzio esparruak eta eragileak
- Politika ekonomikoaren faseak
- Politika ekonomikoa eta atzerapenak

4. Politikaren eta ekonomiaren arteko elkar harremana

- Gobernuaren partehartzearen gaineko teoriak: teoria elektoralista eta partidista
- Administrazioaren eragina politika ekonomikoan

5. Gobernu maila desberdinen arteko ardura banaketa

1) SARRERA

ZER DA POLITIKA EKONOMIKOA?

- Helburu batzu lortzeko hainbat tresnen aldaketa deliberatua (Timbergen, 1961).
 - Agintari ekonomikoek egiten dute.
 - Ekintzak deliberatuak izan behar dira.
 - Helburuen aukera.
 - Tresnen aukera.

ZERK BEREIZTEN DITU TEORIA ETA POLITIKA EKONOMIKOA?


- Teoria ekonomikoaren ikusmira kausala den bitartean politika ekonomikoarena teleologikoa (helburuaren lorpena) da. Hau da:
- Teoria ekonomikoaren helburu nagusia erlazio kausalen eta portaera ereduaren deskribapen (soila) den bitartean, politika ekonomikoa urrunago doa: egoerarekin desadostasuna erakutsiz, hainbat tresnen bitartez errealitatea aldatzea bilatzen da.
- Beraz: teoriak errealitatea deskribatzen duen bitartean (alderdi positiboa), politika ekonomikoa funtsean, normatiboa da.
- Politika ekonomikoaren helburua erabakiak hartzea denez, horretarako ezin bestekoa da hauek justifikatzen dituen oinarri teoriko sendo bat izatea.

POLITIKA EKONOMIKOAREN SAILKAPENA

- Hiru irizpideren arabera sailka daitezke politika ekonomikoak. Kontuz, mugak nahiko ahulak bait dira!
 - ❶ Tresna edo instrumentuen ezaugarrien arabera
 - Politika kuantitatiboak
 - Politika kualitatiboak
 - Oinarrizko erreformak
 - ❷ Dimentsio tenporalaren arabera
 - Epe laburreko politikak
 - Epe ertaineko politikak
 - Epe luzeko politikak
 - ❸ Aktuazio mailaren arabera
 - Politika mikroekonomikoak
 - Politika makroekonomikoak
- Politika fiskala eta moneta politika politika makroekonomikoaren esparruan kokatu ditzakegu, politika makroekonomikoaren tresnak bait dira. Politika makroekonomikoa ekonomiaren oreka nagusienekin erlazionatzen diren agregatu eta aldagai makroekonomikoetan (BEG, I, KPI, kanpo zorra, aurrekontuen defizita, etabar) eragiten duten neurriek osatzen dute.
- Agintariak aldagai makroekonomikoetan eragin dezakete hainbat helburu lortzeko (haien artean, enpleguaren sorrera, inflazioaren kontrola, etabar) horretarako hainbat tresna kudeatuz (moneta politika eta politika fiskala hain artean).

2. SISTEMA EKONOMIKOAK

- Politika ekonomikoa aurretik finkaturiko esparru batetan egiten da.
- Esparru hortan *printzipio* eta *araudi orokor* batzu eta hauek sustengatzen dituen *erakundeak* definitu dira.
- Nahiz eta herrialde bakoitzeko esparruak bereizgarriak izan, orokorrean bizitza politiko eta ekonomikoa antolatzeko ezaugarri bateratuak dituzten *eredu orokorrak* jarraitzen dira ⇒ eredu orokor horiek sistema ekonomikoak dira.
- Sistema ekonomikoa? Iharduera ekonomikoa garatzen den esparrua. Gizartearen antolakuntza sustengatzen duten printzipioak, erakundeak eta araudiak.



SISTEMA EKONOMIKOEN SAILKAPENA

- Sistema ekonomikoak bi irizpide nagusien arabera sailka daitezke:
 - 1 Jabegoaren arabera
 - Jabego pribatua/Jabego Publikoa/Jabego Komunala
 - Jabegoaren arabera ondasun pribatuak, publikoak (garbiak eta ez garbiak) eta komunalak bereiz daitezke.

Lehia erabilpenean			
		Altua	Bajua
Baztertzeko Saitasunak	Bajua	Ondasun pribatuak	Ondasun publiko ez garbiak (Toll goods)
	Altua	Ondasun komunalak (CPR)	Ondasun publikoak

- 2 Esleipen moduaren arabera
 - Merkatu-ekonomiak/Plangintza zentralekoak/Ekonomia mistoak.
 - Errealitatean ez dira “*sistema garbiak*” existitzen.
 - Sistema Kapitalistaren bereizgarriak:
 - Jabego pribatua nagusi.
 - Gizabanakoarne protagonismoa.
 - Merkatuaren subironatasuna.
 - Sistema Sozialistaren bereizgarriak
 - Jabego publikoa.
 - Kolektibitatearen garrantzia.
 - Estatuak hartzen ditu erabaki nagusiak.
 - Ekonomia mistoak: muturretatik urrunduz, gaur egueko ekonomiak *mistoak* direla esan daiteke.
 - Merkatua + estatuaren partehartzea
 - Gizabanakoaren askatasuna
 - Merkatuaren subiranotasuna
 - Jabego pribatuaren protagonismoa

- *Estatuak*: esparru juridikoa zaindu behar du, ekonomiaren egonkortasuna ahalbideratu, errentaren banaketa egokiago bat bultzatu eta efizientzia indartu.
 - “*Ongizate estatuaren kapitalismoa*”.
- (Muturreko) testuliburuetaiko merkatu ekonomia
- Erabaki *indibidualak* hartzeko gizabanakoaren *askatasuna* (kontsumitzaile, ekoizle, baliabideen jabe...).
 - Aurrez erabakitako eta onartutako printzipioak? Jabego pribatua izateko eskubidea, askatasun osoz kontratatze edo trukatzeko eskubidea, lana eskaintzeko askatasuna, arriskuak hartzeko eskubidea, etabar.
 - Merkatua da erakunde nagusia.
 - Smith-en *esku ikusezinak* bateratzen ditu erabaki indibidualak.
 - Nola? *prezioak* dira merkatua gobernatzen duten seinale nagusiak.
 - *Lehiakidetzak perfektuak* agintzen du.
 - Espezializazioa, aurrerapen teknologikoen hedapen azkarra ezinbestekoak.
 - Desorekak, egotekotan, guztiz tenporalak dira.
 - Merkatu ekonomiari dagokion esleipenak ezaugarri xarmangarriak ditu! Ongizatearen 2 teorema.
 - Ongizatearen 1. Teorema \Rightarrow [Indibidualismoa + Askatasuna] \Rightarrow Konkurrentzia perfektua \Rightarrow Efizientzia. *Hainbat aurrebaldintza* onartuz merkatu ekonomiari dagokion esleipena efizientea da Paretoren arabera (PO). Gizabanako bakoitzak prezioen ezagutza besterik ez du behar bere eskari (optimoa) bideratzeko.
 - Baldintzak: eragileak prezio hartzaileak dira, ezagutza perfektua daukate, eta ondasun guztientzako merkatuak existitzen dira behar bezala definituriko jabego eskubideekin.
 - *Ongizatearen 2. Teorema* \Rightarrow “Gizarteari gustatzen zaion” edozein esleipen efiziente lortu daiteke merkatu bidez \Rightarrow Justizia eta birbanaketa justuari buruz onartzen ditugun irizpideak edozein izanda ere merkatu konpetitiboan bidez lortu litezke. Merkatu bidez *desiragarria* den edozein PO izan dezakegu.
 - Nola erabakiko du gizarteak PO diren esleipen guzietatik onena zein den? Ez da posible (*Arrowen ezintasunaren teorema*) gizabanakoen lehentasunetatik abiatuz, gizartearen lehentasunen adierazle izango den gizarte hautaketaren mekanismo egoki bat lortzerik. Diktaturak bakarrik betetzen ditu hautaketa kolektiboaren sistemari eskatzen dizkiogun baldintza *minimoak* (1,2,3). Baldintza minimoak:
 - (1) lehentasun kolektiboak osoak, bihurkorak eta iragankorrak izan behar dira. (2) mundu guztiak $x > y$ orduan gizartearen lehentasunen arabera $x > y$. (3) x eta y -ren arteko lehentasunak gizabanakoek opzio hauek ordenatzen dituzten arabera daude eta ez beste opzio batzuk ordenatzen dituzten arabera.
 - (3)-ri uko eginez gizartearen lehentasunak erakusten dituen hainbat ongizate funtzio aipa litezke (ad. utilitarista, rawstarra, etabar) \Rightarrow Balore juizioak (adimen baloreak) egitea beharrezkoa izango da beraz.

ESTATUAREN ESKUSARTZEA JUSTIFIKATZEN

- Hiru bide: efizientzia, ekitatea, egonkortasuna.
- Merkatu akatzen teoria (efizientzia). Merkatu akatsek \Rightarrow Efizientzia galerak \Rightarrow Estatuaren eskusartzea.
 - Kanpo-faktoreak.
 - Ongi definitu gabeko jabego eskubideak.
 - Merkatu ez konpetitiboak.
 - Eskala etekin gorakorrak (monopolio naturala).
 - Merkatu ez osoak eta informazio-akatsak.
 - Transakzio kostuak.
- Errentaren banaketa desegokia (ekitatea)
 - Merkatu bidezko esleipenak desiragarria ez den errentaren banaketa ekar dezake \Rightarrow ekitate eza \Rightarrow Estatuaren eskusartzea errentaren banaketa egokiago bat lortzeko.
- Akats makroekonomikoak (egonkortasun makroekonomikoa)
 - Desoreka makroekonomikoak merkatuak konponduko ditu epe luzean.
 - Epe laburrean zikloak daude \Rightarrow ondorioak lehuntzeko eta ekonomiaren estabilizazioa bultzatzeko \Rightarrow Estatuaren eskusartzea.
 - Ziklo murriztailean BEG \downarrow , desenplegua \uparrow , inflazioa \downarrow
 - Ziklo hedatzailean BEG \uparrow , desenplegua \downarrow , inflazioa \uparrow

ESTATUAREN AKATSAK


- 1940-1970 bitartean estatuaren eskusartzearen faboreko filosofia orokorra finkatu zen.
- Gaur egun estatuaren eskusartzeak/eskusartze ezak izan ditzakeen irabaziak/galerak gehiago ponderatzen dira. Baina ponderazioa ez da lan erraza. Zergatik?
 - Politika ekonomikoaren dimentsioa konplexua da. Hainbat ekintza edo politika ez dira neurtzen errazak \Rightarrow askotan tresnen eta helburuen arteko lotura hausten da.
 - Estatuak ez da eragile *omnipotentea*. Partzialki aurreikusi eta kontrola ditzake politika ekonomikoek izan ditzaketan ondorioak.
 - Hala ere, estatuak akatsak sortu edo indartu ditzakeela onartzen da. 5 kritika nagusi:
 - ❶ Estatuak osatzen duten gizabanakoen lehentasun propioen eta presio taldeen eragina politika ekonomikoaren determinazioan.
 - ❷ Estatuak osatzen duten gizabanakoek gizartea baino birdeskontu tasa handiagoa dute. Hauteskundeak 4 urtetik behin dira \Rightarrow epe laburreko eraginkortasunaren beharra.
 - ❸ Ongizate kolektiboan oinarrituz gehiegizko erregulazioak lehiakidetzaren hondamena dakar. Bereziki hainbat zerbitzu profesionalen merkatuetan (notariak, farmaziak, etabar) gehiegizko erregulazioak prezio oso altuak ahalbideratu ditu.
 - ❹ Egonkortasuna bultzatzeko politika ekonomikoaren mugak. Ad. autore monetaristen kritika eskola keynestarrerri: [Gastu publikoa \uparrow , defizit publikoa \uparrow , zor publikoa \uparrow , interesak \uparrow] \Rightarrow kanporatze efektua \Rightarrow ekonomiaren egonkortasun eza.
 - ❺ Errentaren birbanaketa bultzatzeko neurrien porrota. Pobrezia poltsak eta gizabanakoen arteko desberdintasunak ez dira ahuldu.

3) POLITIKA EKONOMIKOAREN ELABORAZIOA

POLITIKA EKONOMIKOAREN OPZIO ESPARRUAK ETA ERAGILEAK


- *Politika ekonomiko tradizionalaren arabera* politika ekonomikoaren elaborazioan parte hartzen duten “*agintari ekonomikoak*” guztiz desinteresatuak ziren \Rightarrow politika ekonomikoaren helburuak eta tresnak aukeratzeko orduan gizartearen ongizatea bakarrik dute buruan.
- Aurreko ikuspuntuari kritikak hainbat aldetik etorri zaizkio. Adibidez: hautaketa kolektiboaren jarraitzaileak, neomarxistak, taldeen teoriaren defendatzaileak, instituzionalistak, etabar.
- Politika ekonomikoaren ikuspuntu berriak politika ekonomikoaren elaborazioa ulertzeko faktore politiko eta instituzionalak beharrezkoak direla goraipatzen du. Politika ekonomikoaren elaborazioan parte hartzen duten eragileek bere lehentasun propioak dituzte.

Politikoaren Ikuspuntu Tradizionala



1. Lehetasunak 2. Kontrola 3. Delegazioa 4. Aholkularitza teknikoak 5. Erabakiaren prestakuntza 6. Ejekuzioa 7. Presio 8. Kontsultak 9. Influentziak

Politikoaren Ikuspuntu Berritua



- a Ejekuzioa, b Agentzia harremana, d presioa eta influentziak f kontsultak h Aholkularitza teknikoak eta influentziak

POLITIKA EKONOMIKOAREN FASEAK

- Edozein politika ekonomikoren bizitza aktiboan 3 fase bereizi daitezke:
 - ❶ *Barne denboraldia*: arazoa sortzen den momentutik ekintzak bideratzen diren momenturaino. Hau da: elaborazioa eta inplementazioa. Barne denboraldian bost fase bereiz daitezke:
 - Arazoen onarpena.
 - Edozein ekintza edo politikaren iturburua: arazoak ditugu⇒adierazleen beharra.
 - Aldagai nagusia: informazio estatistikoa.
 - Eragile nagusia: Administrazioa (bereziki estatistika kabineteak).
 - Arazoen analisisa eta aukeren eztabaida.
 - Datuen analisisa eta interpretazioa.
 - Predikzio-ereduak, simulazio ereduak eta programazioa garrantzi handikoak.
 - Eragile nagusia: Administrazioa eta espezializazio maila handiko beste erakunde batzuk (Bankuak, Fundazioak, Ikerketa Institutuak, Unibertsitatea, etabar).
 - Kasu askotan alerta seinaleak finkatzen dira.
 - Neurrien diseinua
 - Neurri desberdinen analisisa.
 - Eragile nagusiak: Gobernua eta Administrazioa. Nazioarteko Erakunde Ekonomikoak.
 - Kotsultak
 - Deliberazio tekniko eta politikoak.
 - Hainbat politika edo ekintza arlotan ematen dira, gizarte arloko kontsensua bultzatzeko dinamika existitzen diren etan bereziki.
 - Bai: errenten politika, baldintza laboralen babesa, etabar.
 - Inoiz: interes tasa edo eta ganbio tasaren aldatetak.
 - Eragileak: Gizarte eta Ekonomia kontseilua, Alderdi politikoak, nazioarteko erakundeak, eta abar.
 - Eztabaida eta onarpena
 - Hainbat erabaki (ez denak) legebiltzarrak onartu beharko ditu.
 - Adibidez: Aurrekontuen elaborazioa, epe luzeko hainbat politika (ad. Politika industrialak edo errentaren birbanaketarako politika).
 - Une bereziko politiken kasuan bestalde balidazioa “*a posteriori-koa*” da.
 - Eragile nagusiak: Legebiltzarra eta Gobernua.
 - Exekuzioa
 - Neurrien inplementazioa (martxan jartzea).
 - Eragile nagusiak: Gobernua eta Administrazioa.
 - ❷ *Kanpo denboraldia*: politika ekonomikoa jada egin da. Epe honetan bere ondorioak igartzen hasten dira. Eraginak: Gizabanakoen erabakien aldatetak eta bukaerako aldagaietan.
 - ❸ *Ebaluazioa*: Eraginkorrak izan dira politikak?

POLITIKA EKONOMIKOA ETA ATZERAPENEN ARAZOA

- Arazoak sortzen diren momentutik politika ekonomikoen ondorioak somatzen hasten diren artean denbora asko igaro daiteke. Behar bada politika martxan hasten denean egoera ekonomikoa aldatu egin da! ⇒ Politikaren eraginkortasuna kolokan jarri daiteke, kaltegarria ere izan daitekeelarik.
- Atzerapenak barne zein kanpo fasean ager daitezke.

- Barne fasean ematen diren atzerapenei *implementazio-atzerapenak* deritzogu.
 - o Arazoen onarpenean ematen diren atzerapen potentzialei aurre egiteko “alerta seinaleak” finkatzen dira \Rightarrow adierazleen sistema (ekonomiaren termometroa)
 - o Elaborazioan eta exekuzioan (akzioan) ager daitezkeen atzerapenei aurre egiteko \Rightarrow politika ekonomikoaren erantzun automatikoaren ahalmena (ad. aurrekontuaren estabilizatzaile automatikoak)
- Kanpo fasean ager daiteken atzerapeneri *kanpo atzerapenak* deritzogu.
 - o Aukeratu diren neurrien egokitasunaren menpe, eragileen erreakzioen menpe eta beste hainbeste aldagaien menpe daude \Rightarrow agintari ekonomikoen sinesgarritasuna sendotzeko baliagarriak izan daiteken edozerk murriztu dezake kanpo atzerapenei dagokien denbora.

4) POLITIKAREN ETA EKONOMIAREN ARTEKO ELKAR HARREMANA

GOBERNUEN PARTEHARTZEAREN GAINEKO TEORIAK

- Abiapunturako galdera: Estatua: aldagai exogenoa edo endogenoa?
- Ikuspuntu tradizional keynestarraren arabera:
 - Ekonomia ez-egonkorra da \Rightarrow estatuaren partehartzea egontortasuna lortzeko.
 - Estatua aldagai exogenoa \Rightarrow Ekonomia eta politikaren arteko independentzia.
 - Ekonomia \Rightarrow Politika / Politika ez \Rightarrow Ekonomia.
- Hautaketa kolektiboaren jarraitzaileek politikak ekonomian duen garrantzia gorai patzen dute.
 - Estatua aldagai endogeno bat da \Rightarrow agintari ekonomikoek lehentasun propioak izan ditzakete. Politikoek motibazio pribatuak zein publikoak bilatzen dituzte. Gizartearen ongizateaz aparte beraiena propioa ere jarraitzen dute.
 - Ze motibazio dira horiek? Bi motibazio desberdinduko ditugu:
 - o Elektoralista/oportunista \Rightarrow Teoria elektoralista
 - Gobernuaren helburua: Botoen maximizazioa.
 - Botoemaileek botoa ematerakoan inflazioaren eta langabeziaren bilakaerak hartzen dituzte kontuan.
 - Botoemaileak miopiek dira. Momentuko ondorio ekonomikoak soilik hartzen dituzte kontuan.
 - Gobernuak ezin du prezio egonkortasunaren helburua eta enpleguarena aldi berean bete: Inflazioa (I) \downarrow langabezia (D) \uparrow
 - Gizartearen ongizate funtzioa: $g_i(D, I)$ non $g_{iD} < 0$ eta $g_{iI} < 0$
 - 2 alderdi politiko (governukoa eta oposizioa) ideologiagabetuak.
 - Helburua: boterea \Rightarrow biek portaera berbera izango dute.
 - Botoemaileek emaitza ekonomikoen arabera bozkutzen dute (hazkundera (BEG), inflazioa(I), langabezia(D):
 - Oposizioari emango diote botua aurreko aldagaien bilakaera okertzen denean.
 - Ondorioz: boterean dauden agintariak politika ekonomiko desberdinak jarraituko dituzte hauteskunderak gertu edo urruti daudenean \Rightarrow ziklo politiko ekonomikoaren teoria. Hauteskunderak gertu daudenean politika ekonomiko hedatzaileak aukeratuko dituzte: BEG \uparrow \downarrow D. Hauteskunde garaian edo/eta justu ondoren I \uparrow . Hauteskundearen ondoren BEG \downarrow D \uparrow I \downarrow .
 - Hauteskunderak 4 urteren bueltan egiten direnez: Politika ekonomikoaren helburu eta tresnek EREDU ZIKLIKO BAT jarraituko dute.
 - o Partidista \Rightarrow Teoria partidista.

- Gobernuaren helburua: Ideologia. Politikoen helburu ideologiko edo eta partidistak dauzkate.
- Alderdi politiko desberdinek ideologiaren arabera aukeratzeko dituzte politika ekonomikoaren helburu eta tresnak. Eskuineko alderdiek inflazioaren aurkako politikak dituzte gogoko. Ezkerrekoek, kontra, bereiziki desentseguari egiten diote aurre.
- Ondorioz: politika ekonomikoaren helburu eta tresnak aldatuz joango dira “gobernuaren kolorea” aldatu ahala. Ezkertiarrek ⇒ eskariaren politika hedatzaileak. Eskubitarrek ⇒ eskariaren politika murriztaileak. Beraz, D txikiagoa, BEG eta I sistematikoki handiagoak ezkerreko gobernuekin.
- Politika ekonomikoaren helburu eta tresnek portaera zikliko bat jarraituko lukete, kasu honetan partidista.

ADMINISTRAZIOAREN ERAGINA POLITIKA EKONOMIKOAN

- Administrazioak (funtzionarioak + kontratatuak) egitura nahiko iraunkorra du. Gobernu aldaketek ez dute aldakata handirik suposatzen.
- Funtzio bikoitza: Informazio emailea / Erabakien exekuzioa.
- Nahiz eta bigarren mailako eragilea dirudien, praktikan influentzia handia eragin dezake. Zergatik?
 - Abantaila informatiboa ⇒ Aurrekontuaren Max. ⇒ efizientzia eza
 - Arrazoi teknikoak.
 - Politikoak teknikoari uzten dio arrazonamendu teknikoak.
 - Politikoak abiapuntuak ematen ditu, administrazioak legeen garapen administratiboa bideratzen du.
 - Koalizio gobernuen ahultasuna administrazioaren iraunkortasunean sustengatzen da askotan.
 - Exekuzioaren erantzukizunak politikarien “kostu politikoa ↓ du.”

5) GOBERNU MAILA DESBERDINEN ARTEKO ARDURA BANAKETA

- Ekonomia gehienetan hiru gobernu maila daude: gobernu zentrala, eskualdeko gobernuak eta herri mailako gobernuak (udalak, mankomunitateak, diputazioak).
- Federalismo fiskalaren teoriak gobernu maila desberdinen arteko arduraren banaketa “egokiena” ikasten du. Bi irizpide hartzen ditu kontuan.
 - *Eraginkortasunaren* maximizazioa (ezarritako funtzioen erdiestean).
 - *Efizientzia*: Kostuen minimizazioa (ekimen publikoak kostu baxuetan egitea).
- Teoria honen arabera, estabilitate makroekonomikoa lortzeko politikak (ad. zerga politika, aurrekontu politika, errenta politika) zentralizatu egin beharko liriateke. Eskualde edo herri mailako ekonomiak *irekiak* dira. Neurriak inguruko herrialdeetara filtratuko liriateke eta ez liriateke esparru propioan eraginkorrak izango.
- Praktikan estabilitate makroekonomikoarekin zerikusia duten hainbat erregulazio (ad. zerga eta aurrekontuak) deszentralizaturik daude.
- Errentaren birbanaketa egokia lortzeko orduan ere zentralizazioa gomendatzen da, errazagoa bait da “irizpide birbanatzaile” berdina aplikatzea.
- Zerbitzu publikoen horniduran aldiz deszentralizazioa gomendatzen da. Zerbitzu hauek emateko arduraren duen erakundeak eta bizilagunen artean gertukotasun bat egon behar delako. *Subsidiaritate printzipioa*: Hiritarrendandik hurbilen dagoen erakundeak egin dezakeena ez dezala urrunagoko batek egin.
- Praktikan eskala ekonomikoa aprobetxatzeko orduan deszentralizazioari mugak jartzen zaizkio.